

**Txingudiko Zerbitzuak (Txinzer) enpresako greba-
batzordeak publikoki salatu nahi du enpresako
zuzendaritzak negoziatzeko borondaterik ez duela, 23 egun
baino gehiagoko grebaren ondoren.**

Txingudiko Zerbitzuak-eko langileok —Irungo eta Hondarribiko uraren eta hondakinen zerbitzuen enpresa kudeatzailekoak— greban jarraitzen dugu, hitzarmen kolektiboaren negoziazioa erabat blokeatuta dagoelako. Greba komitetik salatzen dugu zuzendaritzak ez duela inolako benetako asmorik akordio batera iristeko, eta Administrazio Kontseiluan parte hartzen duten alderdi politikoek berehala esku har dezatela exijitzen dugu, gatazka honi irtenbidea emateko.

Azken urteotan, Txingudiko Zerbitzuak-eko langileok 16 puntu baino gehiago galdu ditugu erosahalmenari dagokionez, eta enpresak ez du neurri bakar bat ere hartu egoera hori zuzentzeko. Enpresa Irungo eta Hondarribiko udalen mendekoa bada ere, gure soldatak udal-langileenak baino askoz baxuagoak dira, funtsezko zerbitzu publiko bat ematen dugun arren.

Gaur egun, Txinzerreko operario batek urtean 28.000 euro gordin inguru kobratzen ditu; hau da, azpikontratutako enpresa bateko peoi batek baino 4.000 euro gutxiago. Egoera hau guttiz onartezina eta justifikaezina da. Gainera, enpresak dio gehiegi kobratzen dugula eta 2.000 euro gutxiago kobratu beharko genituzkeela.

Hori guztia gutxi balitz, lan penagarri, arriskutsu eta toxikoa egiten dugu; izan ere, eskualde osoko ur edangarriko eta hondakin-uren azpiegitura guztia saneatu, mantendu eta kontrolatzeaz arduratzen gara. Lan-baldintza horien ondorioz, enpresaren historian lan-istripu larriak eta heriotzak gertatu dira (bi langile hil dira gas toxikoak arnasteagatik, eta beste bat amiantoaren eraginagatik).

Bitartean, enpresako zuzendaritzak bere soldata nabarmen igo du azken urteotan. Txinzerreko zentroko zuzendariak Irungo alkateak baino 23.000 euro gehiago kobratzen ditu: 94.000 euro urtean, Irungo alkatearen 71.000 euroen aurrean. Eta, hala ere, lotsarik gabe adierazi du: “guztioi gustatuko litzaiguke Udalean bezala kobratzea”.

Joan den astean, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten alderdi politikoekin bilerak egin genituen, eta horietako hainbat ados agertu dira Txingudiko Zerbitzuak-eko langileon soldata- eta lan-baldintzak Irungo Udaleko langileenekin parekatu behar direla, eta gure aldarrikapenak babestu dituzte erosahalmena berreskuratzeko beharrari dagokionez. Aldiz, Administrazio Kontseiluko lehendakaritza duen PSOE alderdiak jarrera hotza eta urruna erakutsi du, eta esandakoa enpresako zuzendaritzari helaraztera mugatu da; gainera, “talde sindikal” bati argazkia ateratzeari uko egin dio.

Horregatik guztiagatik, Irungo eta Hondarribiko udalei berehalako inplikazioa exijitzen diegu, gatazka hau konpon dezaten. Bestela, hurrengo Administrazio Kontseiluan irtenbiderik ematen ez bada, langileok greba mugagabea deitzeko beste aukerarik ez dugu izango.

Egoera hau saihesteko ardura erabakiak hartzeko ahalmena dutenen esku dago.